

MEMORIA

2024

EUSKARA

ARLOA





EIBAR

Euskara



Eibarren

AKEBAI



AURKIBIDEA

00

ANTOLAKETA OROKORRA

1. Euskara Arloaren planak	6
2. Batzorde Aholkulariak	7
3. Euskara Arloaren antolaketa	8
4. Euskara Arloaren aurrekontua	9

01

BARNE NORMALIZAZIOA

1. Plan Estrategikoa	11
2. Kirol Arloko Plana	12
3. Harrera ordezkari politikoei	13
4. Langileak planaz informatu	14
5. Lanpostu berriei hizkuntza eskakizuna jarri	15
6. Ez-betetzeak	16
7. Mikroplanak	17
8. Parte hartzea sustatu	18
9. Langileen hizkuntza-gaitasuna	19
10. Hizkuntza hautua jasotzeko eremua	20
11. Dirulaguntzetan hizkuntza klausulak jarri	21
12. Dirulaguntzetako hizkuntza klausulen jarraipena	22
13. Trebakuntza saioak	23
14. Kexak eta intzidentziak	24

AURKIBIDEA

02

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

1. <i>Zorionak</i> diptikoa	26
2. Euskarazko produktuen katalogoa	27
3. HAZI HEZI aldizkariaren banaketa	28
4. Infografia <i>Familia hizkuntza Ume eleanitzak</i>	29
5. <i>Gu ere bertotan</i>	30
6. <i>Jira bueltan</i> materialaren lanketa	31
7. Musikala	32
8. <i>Euskara Zine Aretoetara 2023-2024</i>	33
9. <i>Ongi Etorri Euskarara</i>	34
10. <i>Txikitasunean haundi</i> motibazio saioak DBH1	35
11. Soziolinguistika proiektua DBH	36
12. <i>Mintza On!</i>	37
13. Bertsolaritza inklusio bide	38
14. <i>Alpistegia</i>	39
15. <i>Baga Biga Higa</i> emanaldia	40
16. Arrateko Jarduerak DBH2	41
17. Motibazio saioak Lanbide Heziketan	42
18. Oinarrizko Euskara Ikastaroa Debararren Integra/Bat Eginez	43
19. Euskara saioak Lanbide Heziketan	44
20. Euskaltegien Lan-mahaia	45
21. <i>Gurasoak ere eskolara</i> Egitasmoa 2023-2024	46
22. <i>Ongi Etorri Berbetanera</i>	47
23. Euskara saioak HHI-EPA	49
24. Merkataritza Lan-mahaia	50
25. <i>e// Euskaraz barra-barra</i> egitasmoa	51
26. <i>Euskaraz primeran!</i>	52
27. Eibar euskaraz heziko duen hiria	53
28. UEU dirulaguntza deialdia	54
29. Euskara dirulaguntza izendunak	55
30. Dirulaguntza errotuluak euskaraz	57

AURKIBIDEA

03

EIBARREN AKEBAI

1. Ekipoa	59
2. Super Akeak	60
3. Irakasleentzako motibazio saioak	61
4. Kirol klubentzako motibazio saioak	62
5. Appa Hi! aplikazioa	63
6. Hezitzaileentzako sentsibilizazio saioa	64
7. Begirale ikastaroa	65
8. Game erauntsia	66
9. Eskola orduz kanpoko jardueren hizkuntza egoeraren diagnosia	67
10. Hamaika berbaldi	68
11. Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina	69
12. Hizkuntza eskubideen ataria	70
13. Transmisio mintegia	71
14. Euskararen hamabostaldia	72
15. Gidabaimena euskaraz	73
16. Korrika	74
17. M8 Lantaldea	75
18. Eskuko hiztegiak	76
19. Familia bidezko hizkuntza transmisioa	77

04

UDAL EUSKALTEGIA

1. Euskaltegiko plantila	79
2. Euskaltegiaren eskaintza	80
3. Matrikula epeak eta egutegia	82
4. Tasak eta tarifa bereziak	83
5. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua	84
6. Ikaslearen profila	85
7. HABEren aztertzaileak	86
8. Formazioa	87
9. Kanpo ekintzak	88
10. Liburutegi zerbitzua	90
11. Egiatzatzegintza	91

ANTOLAKETA OROKORRA



EIBAR
Euskara

EUSKARA ARLOAREN PLANAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- Barne Erabilera Plana 2023-2027.
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2024-2025 ikasturteko plana



EPEA: 2024

GASTUA: Euskara Arloaren aurrekontu osoa


BALORAZIOA:

Euskararen erabilera normalizatzeko VII plangintzaldia 2024ko urtarrilean onartu du udal batzak. Euskararen plan estrategikoaren urteko balorazioa Euskara batzordean egin da eta AKEBAIren batzar nagusian egiten da.

Udal euskaltegiak ikasturteko plana eta memoria egiten du HABEn eta Euskara Batzordean aurkezteko.

BATZORDE AHOLKULARIAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



Euskara Batzordea:

- Presidentea, EAJ-PNVko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

ESEP eta AKEBAko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

ENBA

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatzailea
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria
- Bilera hilean behin egiten da.
- Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

EPEA: 2024

CASTUA: Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

BALORAZIOA:

Euskara Batzordea: 8 batzorde egin dira, 48 gai landu dira.

ENBA: 7 batzorde egin dira, 20 gai landu dira.

EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun gaude.



Kargua	Oharra
Arloko Zuzendaria/ euskara teknikaria	
Barne normalizatzailea	
Itzultzailea	Itzulpen zerbitzurako lanean
AKEBAI dinamizatzailea	
Euskaltegiko irakasleak 6	
Administraria	

EPEA: 2024

GASTUA: 990.280 €

EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago.



EPEA: 2024

GASTUA:

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
EUSKARA ARLOA	379.265,00 €	1.032.373 €
Euskara Zerbitzua	14.939,00 €	673.914 €
Euskaltegia	364.326,00 €	358.459 €

BARNE NORMALIZAZIOA



EIBAR
Euskara

PLAN ESTRATEGIKOA

DESKRIBAPENA: Plangintzaldi berriko lehen urtean, barne-erabilerarako plan berria egiten da, aurreko planaren betetze-mailaren jarraipena eta uneko egoeraren diagnosia eginda.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: 2023. urtean zehar landutako Eibarko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2023-2027 urtarrilaren 29ko Udalbatzan onartu da. 19/2024 Dekretuan jasotakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari txostena eskatu zaio eta Udalaren web orrian argitaratu da.

KIROL ARLOKO PLANA

DESKRIBAPENA: Udaleria duela gutxi integratutako arloaren diagnostika eta plana egitea.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

Kirol arloko plan propioa egiteko hainbat bilera egin dira zuzendaritzako kideekin. Ondoren, euskararen lan-mahaia osatu da, langileen zenbait ordezkariarekin. Lan-mahaian aztertu dira Euskara Zerbitzuak proposatutako bi urterako plana eta hizkuntza-irizpideak.

HARRERA ORDEZKARI POLITIKOEI

DESKRIBAPENA: Saioaren helburua da Eibarko Udaleko arduradun eta zuzendariek jabetzea euskararen erabilera-planean jokatu behar duten rolaz eta hizkuntza-kudeaketan duten arduraz, baita parte-hartze aktiboa izatea ere, euskararen erabilera-planeko ekimenen sustatze-lanetan.



EPEA: 2024

GASTUA: 1.232 €

BALORAZIOA: EMUN enpresak emango du formakuntza. 2 orduko saioa izan da eta 30 lagunek parte hartu dute, deitutakoen % 94k, bi taldetan banatuta.

LANGILEAK PLANAZ INFORMATU

DESKRIBAPENA: Langileek argi izan dezaten haien jardunean zein irizpide bete behar dituzten informazio-saioak egiten dira sailetan, bai eta langile hasi berriekin ere.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Urrian, hizkuntza-irizpide berriak ontzat emandakoan, informazio-saioak egin dra sail eta departamentu guztietan eta 80 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Horrez gain, mezu elektronikoz ere azaldu zaizkie jarraibideak.

Langile berriei egin beharreko harrerari dagokionez, 25 lagunekin egin dira saioak, batzuekin banaka eta beste batzuekin taldeka. Euskara-planaren berri eman zaie, eta udal-irizpideak banatu eta azaldu zaizkie.



EIBAR
Euskara

LANPOSTU BERRIEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA JARRI

DESKRIBAPENA: Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza-eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: 2024an 12 lanposturi ezarri zaie Hizkuntza Eskakizuna.

EZ-BETETZEAK

DESKRIBAPENA: Zerbitzu-hizkuntzari eta lan-hizkuntzari lotutako ez-betetzeen erregistroa egiten dugu, eta dagokionari jakinarazten zaio konpondu dezan.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Astindu kanalaren edo jarraipenerako egiten diren behaketen bidez, izaten dugu irizpideen ez-betetzeen inguruko informazioa.

2024an 20 ez-betetze erregistratu dira. Gehienak zerbitzu-hizkuntzari dagozkionak: webgunean jarritako mezuetan hizkuntza akatsak identifikatu dira batzuetan edo gaztelania hutsezko testua jarri; herritarrentzako mezu batzuk gaztelania hutsean bidali dira; ekitaldi edo jardueren zabalkunderako kartel batzuetan akatsak edo bakarrik gaztelaniaz erakutsi dira ikusi da; instalazio publikoi batean eraikina girotzeko sintonizatutako irratia edo fondoko musika gaztelaniaz bakarrik egp



EIBAR
Euskara

MIKROPLANAK

DESKRIBAPENA: Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehazten ditugu.

Kontingentezko Normak	afektu	hazten eredu ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
Kontingentezko Normak	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar
	afektu	hazten ereduak egin behar

EPEA: 2024-2025

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Ekintza-multzo bat proposatu zaie sailei, eta, aurreko mikroplanak kontuan hartuta, 12 sailetan 2024-2025 epealdirako plana egokitu dute.



EIBAR
Euskara

PARTE HARTZEA SUSTATU

DESKRIBAPENA: Langileen parte hartzea sustatzen da erabilera-planeko ekintzetan: Euskararen lan-mahaia, euskararen inguruko ospakizunak (Euskararen eguna, Euskaraldia, Korrika), trebakuntza, hizkuntza-baliabideak, euskaraz zuzen jarduteko gomendioak, informazioa...



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

Euskararen lan-mahaia: Hiru batzar egin dira 2024an zehar. Hauek egin dira: Aurreko plangintzaldiaren amaierako diagnostikoaren berri eman, Eibarko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren eta Kudeaketa-planaren ingurukoak aurkeztu, Normalizazio dekretu berria azaldu, mikroplanetarako ekintzak eta adierazleak erakutsi, Korrika antolatu, trebakuntza eskaintzeko aukerak aztertu eta iritzia eskatu eta Euskararen eguneko ekintzak adostu.

Euskararen eguna: Berbaxerka lehiaketa

Trebakuntza: Taldekako bi trebakuntza-saio izan dira: Zalantza dantza eta Teknologia ere bidelagun. Batean 8 lagunek parte hartu dute eta bestean 7k. Horrez gain, zinegotzi batek maila hobetzeko saioak jaso ditu bakarka.

Jantzi euskaraz di-da batean: 37 astetan jarri dira hizkuntza-gomendioak Intranetean. Tartean izan dira baliabideen eta hizkuntza-irizpideen gaineko mezuak ere.

Informazioaren zabalkundea: Euskara ikastera joateko aukeraren berri eman zaie langileei (IVAP), Hizkuntza Eskakizunak egiaztatzeko deialdien inguruko informazioa eman da, Eibarko euskararen agenda jarri da sukaldeko ohar taulan...

LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

DESKRIBAPENA: Langileak lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko gai izan daitezzen, euskara-gaitasuna hobetzeko aukeren berri ematen zaie, erabilera egokirako hizkuntza aholkuak ematen zaizkie eta zuzenketa zerbitzua eskaini.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

·Maiatzean euskara ikastera joateko IVAPen deialdiaren berri eman zaie langileei. 18 lagunek egin dute eskaera, 3k B2 maila gainditzeko ikastaroa egin nahi dute, 6k C1 mailakoa eta 7k C2 mailakoa.

·Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deialdien berri eman zaie langileei. Lehenengoan 10 izen-emate egon ziren eta bigarrenerako ere 10.

·Talde-trebakuntza eskaini da aldezturik euskararen lan-mahaian iritzia eskatuta. Bi saio egin dira: Zalantza dantza eta Teknologia ere bidelagun.


Hizkuntza aholkularitza eman da. Bi modutara egin da; batetik, zuzentzera edo gainbegiratzera bidalitako testuetan egindako akatsetatik abiatuta, eta, bestetik, Jantzi euskaraz di-da batean izenekoarekin (Intranetean jarritako hizkuntza gomendioak, 5 minutuko ikastaroen tankerakoak).



EIBAR
Euskara

HIZKUNTZA HAUTUA JASOTZEKO EREMUA

DESKRIBAPENA: Hala nahi duen herritarrari euskara hutsezko zerbitzua eman ahal izateko, datu-base eta erregistroetan herritarraren hizkuntza hautua jasotzeko eremua sortzea.



Harremanetarako hizkuntza /

☐ Euskara ☐ Ele bitan

EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Dagoeneko txertatuta dago eskabide eta inprimakietan hizkuntza hautatzeko eremua.

DIRULAGUNTZETAN HIZKUNTZA KLAUSULAK JARRI

DESKRIBAPENA: Dirulaguntza jasotzen duten elkarteek herritarrekiko harremanetan euskara erabil dezaten, dirulaguntza oinarrietan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak jartzen dira.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Aurrekontua onartzearekin batera argitaratzen den dirulaguntzen zerrendatik zenbait aukeratu dira eta begiratu da ea hizkuntza-klausularik jarri diren. 17 dirulaguntza izendun begiratu dira; bat ez da gauzatu, beste bat oraindik onartzeko dago eta beste guztietan jarri dira hizkuntza-klausulak.

Norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntza bi aztertu dira eta bietan jarri dira hizkuntza-betebeharrak.

Ebaluazio bakoiztu bidez emandakoetatik begiraturako 3 laguntzetatik bitan jarri dira.

DIRULAGUNTZETAKO HIZKUNTZA KLAUSULEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak ematen dituen dirulaguntzen oinarrietan eta hitzarmenetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, dirulaguntza izendunetako jarduketa memoria eskatuta.

EGINDAKO JARDUERAK (deskribatu) / ACTIVIDADES REALIZADAS (describir)			
Jardura: izena eta mota / Actividad: nombre y tipo	Data / Fecha	Hartzaileak / Destinatario/a/s	Jardueraren hizkuntza / Idioma actividad
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe
"	"	☐ Haurrak / Niños/as ☐ Gazteak / Jóvenes ☐ Orokorra / Generala	☐ Euskaraz / En euskera ☐ Gaztelaniaz / En castellano ☐ Ele bietan / Bilingüe

DIRULAGUNTZAK

EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

- Dirulaguntza izendunen 14 onuradunen jarduketa-memoria eskatu da eta horrela egin da betetze-mailaren jarraipena.
- Antolatutako ekintza gehienak hartzaile orokorrentzat dira; baina badira pertsona nagusiei eta gazteei zuzendutakoak ere.
- Jarduerak zein hizkuntzatan izan diren galdetuta, batzuek ez dute jardura espezifikorik aipatzen edo zerrendatzen; beste batzuek ez dute esaten zein hizkuntzatan izan diren (5); batek gaztelaniaz izan direla dio; gainerakoek (6) ele bietan izan direla esaten dute.
- Jardueren zabalkundea ele bietan egin dutela esaten dute guztiek.
- Aurten bi kexa jaso dira udalaren dirulaguntzaz elkarte bik egindako kartelen inguruan. Kasu batean kartela gaztelaniaz bakarrik zegoelako eta bestean akatsak zituelako.



EIBAR
Euskara

TREBAKUNTZA SAIOAK

DESKRIBAPENA: Udaleko pertsonen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko, langileak eta ordezkari politikoak haien eginkizunetan trebatzen ditugu.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak - Udal Euskaltegiko irakasleak

Ordezkari politikoak

Aurreko urtean trebakuntzan ibilitako zinegotziak jarraitu egin du asteen ordubeteko bi saio egiten; guztira 50 saio izan dira; horietako batzuk ohi baino motzagoak. Ahozkoa landu du gehien bat, eta gaiak lanekoak izan dira, oro har. Hizkuntza-normalizatzailea aritu da irakasle lanetan.

Taldeakako trebakuntza:

2 trebakuntza-saio eman dira udaberrian apirilean hasi eta maiatzean amaitu::
Zalantza dantza eta Teknologia ere bidelagun.

Udal-euskaltegiko irakasle batek eman ditu.

Ordubeteko lau saio izan dira. Batean 8 lagunek parte hatu dute eta bestean 7k. Balorazio ona izan dute.

KEXAK ETA INTZIDENTZIAK

DESKRIBAPENA: Herritarrek eta udalaren zerbitzuen hartzaileek egindako kexa eta gertatutako intzidentziei jarraipena egiten diegu.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: 6 intzidentzia jaso dira. Herritarren hizkuntza-eskubideak urratzeagatik jarri dira kexa guztiak.

2 intzidentzia kiroldegian gertatutakoak dira:

- kirol klubei bidalitako ohar bat gaztelania hutsean
- kiroldegiko musika guztia erderaz egotea

3 intzidentzia udal zerbitzuei dagozkienak izan dira:

- Semaforoan oharra gaztelania hutsean
- Errebal plazia izenaren idazkera okerra
- Kulturako telgramean kartel bat gaztelaniazkoloturekin

Hizkuntza-eskubideen azken urraketa elkarte batek diruz lagundutako jarduera bat iragartzeko kartel batean gertatu da. Gaztelaniaz bakarrik iragarri da.

Horietako salaketa batzuk Astindu kanalean eta Behatokian jarri dira. Beste batzuk udalean zuzenean erregistratu dira. Guztiak bideratu dira, erantzun dira eta semaforoena izan ezik konpondu dira.




EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA



EIBAR
Euskara

ZORIONAK DIPTIKOA

DESKRIBAPENA: Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



EPEA: 2024

BALORAZIOA:

2024 urtean 159 ume jaio dira, 76 neska eta 83 mutil

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktuak katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



EPEA: 2024ko azaroa

GASTUA: 3.417,00 €

BALORAZIOA:

2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

DESKRIBAPEN

Horretaz gain u

1000



19 gurasok emar

- 13 Mogelegeko

- 1 Arrateko Arrate

INFOGRAFIA *FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK*

DESKRIBAPENA: *Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua* infografia bilakatua. Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Whatsapp bidez banatzeko bertsio arina ere badago.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleaniztasunera-infografia>



EPEA: 2024ko iraila-urria

BALORAZIOA:

Ikastetxeek gustura hartu dute multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere.

Watsap bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.

GU ERE BERTSOTAN

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsolaritza lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: Eibarko Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe hartu dute parte. Egitasmoa 22 ikastaldetan burutu da. 475 umek landu dute bertsolaritza. Umeei bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Umeei bertso jaialdiak Coliseoan 3 egunetan egin dira, eta aretoa bete egin da.

JIRA BUELTAN MATERIALAREN LANKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Badihardugurekin lankidetzan Jira bueltan kanta eta jolasen liburuxka-DVDa sortu zuen.

AKEBAko Transmisioa mahaia material horren lanketa egiteko eskoletako jangelen jolas orduak aprobetxatu nahi izan ditu, gune informaletan ikasgelatik at ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko. Astixa Animazio Zerbitzuko begiraleek 2 saioko tailerrak eman dituzte ikastetxeetan, jangeletako hezitzaile eta HH5 mailako eta LH1 mailako umeekin jolasak lantzeko.



EPEA: 2024 otsaila-apirila

BALORAZIOA: Astixako hezitzaileak ikastetxe guztietatik pasatu dira jolasak eta abestiak irakasteko. Saiok hasi aurretik, joratu beharreko jolasen azalpenak jantokiko arduradunei banatu zaizkie beraiek aurretik ere landuta izan ditzaten.

Guztira 19 ume taldek eta euren begiraleek hartu dute parte. Guztira 422 umek ikasi dituzte jolasak. 60 saio egin dira, eta Astixako 2 hezitzaile aritu dira zeregin horretan.

2024ko otsailaren 12tik martxoaren 13ra, astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:30era bitartean eman dira saioak. Jira Bueltan liburutik 7jolas aukeratu dira, 5-7 urteko umeentzat egokienak. Jantokiko hezitzaileak umeekin batera murgildu dira jolasetan.

Umeen harrera, orokorrean ona izan da, eta saioa aurrera joan ahala gusturago erabiltzen direla proposatutako jolasetan.

MUSIKALA

DESKRIBAPENA: Ikuskizun multi-disziplinar bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatze prozesuak dakartzan onura guztiak dituen, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobea da musikala.

Eibar BHI-Isasi ikastetxean horrela ikusi dute, eta Hauspoa programaren barruan sartu dute musikala. Horrela, ikasleek euskara modu ludikoan erabiltzen dute, eremu akademikotik at, eta bide batez kohesioa eta talde identitatea indartzen da.

DBHko ikasleek urritik maiatzera bitartean antzerki, kantu eta dantza tailerretan musikala prestatu ondoren, Coliseo antzokian hainbat emanaldi burutzea da helburua. Andrea Covadonga aktore eta kantaria izan da tailer horien gidari.




EPEA: 2024ko maiatzaren 8an

GASTUA: 6.000 €

BALORAZIOA: 28 ikaslek hartu dute parte, 25 neska eta 3 mutil, nagusiki DBH1ekoak aritu dira musikala prestatzen, Andrea Covadongaren gidaritzapean ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz.

EUSKARA ZINE ARETOETARA 2023-2024

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: TINKOk 9 filma eman ditu. Filme batzuk Coliseoan eman dira eta beste batzuk ikastetxean bertan. 2.446 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEA LH:

- San Andres 5 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 5 filma
- La Salle Isasi 5 filma
- Arrateko Andra Mari 3 filma
- Aldatze 4 filma

IKASTETXEA DBH

- Eibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain filma 1

ONGI ETORRI EUSKARARA

DESKRIBAPENA: Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira astean, Indianokua gaztelekuan eta taldea osatuz gero ikastetxean bertan.

Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHIⁿ hauspoa egitasmoaren barruan eskaini da.



EPEA: 2023-2024 / 2024-2025 ikasturteak

BALORAZIOA: 2023-2024 ikasturtean 6 talde osatu dira. Guztira 50 ikasle. 3 talde Eibar BHI Isasin, talde 1 Jardinetan eta 2 talde Gaztelekuan La Salle eta Aldeko ikasleak osatuak

2024-2025 ikasturtean 5 talde osatu dira. Guztira 51 ikasle. Eibar BHI Isasin 2 talde, Jardinetan 2 talde eta Gaztelekuan talde 1.

TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



EPEA: Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

BALORAZIOA: 350 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 14 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da.

SOZIOLINGUISTIKA PROIEKTUA DBH

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak herriko gazteen hizkuntza portaeretan eragin nahi du eta herriko ikastetxeetan ikasleekin hizkuntza asertibitatea, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza portaera ekologikoak lantzeko proiektu integrala diseinatu eta gauzatu nahi du.

Euskararen normalizazioa gizarte eraldaketa prozesu sakona da, eta DBHko gazteak euskaraz bizitzeko hautua egin dezaten prestatu behar ditugu, bizikidetzak, eleaniztasuna eta erantzukizun soziala aintzat hartuta.

Ikasleak euskal hiztun moduan ahalduntzea izanik helburu, Eibarko Udalak, herriko ikastetxeekin batera, ikasleen trebakuntza soziolinguistikoa indartu nahi du, euskararekiko duten atxikimendua indartzeko alderdi emozionala ere landuta. Hizkuntzen Ekologia eta Hizkuntzen Iraunkortasuna jarri nahi ditu diskurtsoaren zutabe, besteak beste, honako gaiak landuta: hizkuntza aniztasuna, euskaldunaren iruditeria, euskaldun izateko legitimitatea, hiztunen arteko aukera berdintasuna, Eibarko datu soziolinguistikoak, ahobizi edo belarriprest izateko estrategiak, bakoitzaren nahiak, beharrak, harremanak eta sentimenduak.



EPEA: 2024

BALORAZIOA: Eibar BHI ikastetxeak, La Salle ikastetxeak eta Aldatze ikastetxeak hartu dute parte. Ikasleekin egindako saioak arrakastatsuak izan dira.

Harrera ona izan dute saiook hasieratik, eta normalean gogotsu hartu dute parte. Gainera, saioak aurrera joan ahala, gero eta lasaiago erantzun dute beraiei egunerokoan dituzten hizkuntza ohitura, aurreiritzi edo portaeren inguruan. Esatekoan da Eibarreko nerabeen artean nabari dela orokorrean badituztela euskararen inguruko aurreiritzi asko eta ikasle askok eskolatik kanpo ez dutela euskarekiko loturarik. Klaustro guztiei egitasmoa aurkeztu zaie eta soziolinguistika lanketa ere egin d

MINTZA ON!

DESKRIBAPENA: Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6 mailetako umeei eskola ordutik kanpo euskara lantzeko online errefortzu saioak eskaintzen zaizkie Euskara Zerbitzutik ebete enpresaren bidez.

Egitasmoa eskolatik kanpo euskaraz hitz egin edo euskara entzuteko aukera gutxi duten umeei zuzendua dago.



EPEA: 2024 urtarrila-maiatza eta urria-abendua

BALORAZIOA: Udaberriko ikastaroan 51 umek hartu dute parte 5 taldetan banatuta. Udazkeneko ikastaroan 94 ume aritu dira 15 taldetan banatuta.

Ikasleen eta familien balorazioa oso onda izan da.

BERTSOLARITZA INKLUSIO BIDE

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin lankidetzan Eibar BHIko DBH 1 mailako ikasleei “Bertsolaritza inklusio bide” egitasmoa eskainiko die. Proiektu komunitarioa izan da. Bertsolaritzak kulturen, hizkuntzan, musikan eta trebetasun pertsonal/sozialetan egiten du ekarpena. Eibarren garrantzi berezia du hizkuntzaren lanketa ludikoak eta euskal kulturara gerturatzeko egitasmoa izateak. Hamabostean behin egin dute lanketa.



EPEA: 2023/2024 ikasturtea

BALORAZIOA: Bigarren aldiz burutu da Eibar BHI ikastetxean “Proiektu komunitarioa” ikasgaiaren barruan “Bertsolaritza inklusio bide” proiektua. Eneko Beretxinagak gidatu du eta bukaeran 2 bertso emanaldi antolatu ditzuzte ikasleek (espazioa antolatu, zabalkundea egin, gai-jartzaile lana) eta Nerea Ibarzabal eta Julio Soto izan dira bertsolariak.

ALPISTEGIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 7 saio egingo dira, 6 Portalean eta bestea Iturburun. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta hizkuntzarekin jolas egitea da.



EPEA: 2024ko otsaila-martxo

GASTUA: 4.900 €

BALORAZIOA: Ikasleek asko parte hartu dute emanaldian zehar eta balorazioa oso positiboa izan da.

Otsailaren 22ean Areto nagusian

10:00 Urkizu

11:15 Aldatze

Martxoaren 13an Areto nagusian eta Iturburun

10:00 San Andres

11:15 La Salle

14:30 Mogel Iturburun

Martxoaren 14an Areto nagusian

10:00 Amaña

11:15 Arrateko Andra Mari

BAGABIGAHIGA EMANALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.



EPEA: 2024ko apirilaren 15ean 9:00 // 11:00 // 13:00

BALORAZIOA: DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte 3 emanalditan banatuta. Guztira 225 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, eta ikasleen jarrera oso ona.

ARRATEKO JARDUERAK DBH2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako egonaldia antolatu du Arraten. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitze helburua ere badu egonaldiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzaren aberatsagoa izatea). Baina batez ere, ikastetxetik kanpo, inguru naturalean, jolas eta talde jardueren bitartez euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea da helburua.



EPEA: 2024ko udaberrian

GASTUA: 7.857 €

BALORAZIOA: DBH2ko 10 talde egon dira Arraten (apirilaren 24tik maiatzaren 16 bitartean), egunean gela bat, 2 irakaslerekin eta Astixako 2 begiralerekin. Astixak dinamizatu eta koordinatu ditu eguneko jarduerak 08:30etik 17:00etara bitartean. Jardueren artean: Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa bisitatu; inguruko baserrien izenak, toponimoak, zuhaitzen izenak... ikasi; euskararekiko sentsibilizazio eta motibazioa lantzeko bertso tailerra, inguruko bertsolari gazteek emana; talde dinamika...

Ahal izan den guztietan oinez igo dira taldeak Arratera, eta oinez jaitsi; eguraldiagatik ezinezkoa izan denetan, autobusa izan dute. Jarduerak ere kanpoan egin dira gehienetan, baina ezin izan denean, Arrateko aterpetxea erabili da.



EIBAR
Euskara

MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A eta D ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea da eta dakitenak erabiltzera animatzea.



EPEA: 2024ko iraila-urria

BALORAZIOA: Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 13 taldek eta UNiko 12 taldek jaso dute. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegietara jo dute euskara ikastera.

OINARRIZKO EUSKARA IKASTAROA DEBABARRENA INTEGRA / BAT EGINEZ

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak Udal Euskaltegiarekin eta Eibarko AEKrekin lankidetzan oinarrizko euskara ikastaroa ematen dute Armeria Eskola elkarteak bideratzen duen “Debabarrena Integra Bat eginez” egitasmoan txertatuta.



EPEA: 2024ko urria 2025eko otsaila

BALORAZIOA: Udaleko euskara Zerbitzuaren eta Armeria Elkartearen arteko lankidetzak oso ona izan da. Euskara saioetan 12 ikaslek hartu dute parte eta 6k oso ondo jarraitu dute formakuntza. Ikasleek hasieratik jarrera ona erakutsi dute eta arrakastaz burutu dute ikastaroa.

EUSKARA SAIOAK LANBIDE HEZIKETAN

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Ameria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan 60 orduko euskara klaseak eskaintzen ditu Erdi mailako zikloetan. Helburua euskarazko oinarritzko ezagutza jasotzea da ezer ez dakitenen kasuan. Euskara ezagutzen dutenen kasuan euskara eta lan-mundua lotzea da xedea.



EPEA: 2023ko urria-2024ko otsaila

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Lanbide Heziketako UNI Eibar-Ermuako "Jarduera fisiko"etako taldeetakoek jaso dituzte 60 orduko euskara klaseak.

EUSKALTEGIEN LAN-MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskara Zerbitzuak Udal Euskaltegiarekin eta Eibarko AEKrekin euskalduntzea sustatzeko egitasmo eta proiektuak bideratzeko lan-mahaia dinamizatzen du.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Honako egitasmo hauek bideratu dira:

Euskalduntze kanpaina bateratua guraso, ikasle, jubilatuz, merkataritza eta enpresetako langileentzat

Gurasoak ere eskolara egitasmoa

Debabarrena integratua-Debabarrena bat eginez egitasmoko euskara ikastaroa

UNI eta Armeria eskolako euskara klaseak

EPAko euskara klaseak

GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2023-2024

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 100 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.



EPEA: 2023ko urritik 2024ko maiatzera

GASTUA: Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

BALORAZIOA: Kanpaina hau egiten den 8. ikasturtea da eta 29 gurasok eman dute izena eta 2 talde osatu dira. Saioak Portalean ematen dira.

Ikasturte honetan ere talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila izan dira.

Saioak Portalen izatea auzo batzuetako gurasoentzako eragozpena izan da, ikastetxetik urrun gelditzen baitzitzairen.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

ONGI ETORRI BERBETANERA 1/2

DESKRIBAPENA: Eta kitto! euskara elkarteak bideratzen du egitasmoa udalaren laguntzarekin eta lankidetzan. helburua da Eibarrera etorri berri direnen edo denboratxo bat gure artean daramatenen eta bertakoen arteko elkarbizitza eta elkar ezagutza sustatzea, hau da, jatorri ezberdinetako bizilagunak elkartzea eta elkar ezagutzea beti ere euskara eta euskal kulturaren ikuspegitik.

ONGI ETORRI Berbetan **DOAN! ¡GRATIS!**

ZERTARAKO? ¿Para qué?

- Euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko eta jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko.

Para acercarse al euskara y a la cultura vasca y conocer a gente de diferentes culturas.

NOLA? ¿Cómo?

- Kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonak taldeetan elkartuko gara, herriko auzoetan. Ordu eta erdiko saioetan, astean behin.

Nos reuniremos en grupos, personas de distintos lugares en diferentes barrios de Eibar. Un día a la semana, durante hora y media.

...eta gainera ...y además

- Irteerak
- Tailerrak

EPEA: 2024

GASTUA: 29.050 €

BALORAZIOA: Adinari dagokionez gazteenak 26 urte ditu eta nagusienak 50 urte.

ONGI ETORRI BERBETANERA 2/2

INFORMAZIO GUZTIA BATERA

EGUNA	AUZOA	ORDUA	PARTAIDE KOPURUA	EMAKUME	GIZON
Asteartea	Ipurua (EPAn)	15:00-16:00	5	5	0
Asteazkena	AMANA (eskolan)	14:30-16:00	10	10	0
Osteguna	URKIZU (eta kiton)	10:30-12:00	5	3	2
	URKI (eskolan)	14:30-16:00	16	15	1

NOLA GAUZATZEN DA PROGRAMA

Saio praktikoak dira, giro informalean egiten direna.

Taldeak txikiak izaten dira, jatorri eta kultura ezberdinetako lagunez osatuak. Saioak teknikari batek dinamizatzen ditu eta oso giro lasai eta informalean hainbat gai jorratzen ditugu, oso modu praktikoan. Horrez gain, herriko ekintzetan ere parte hartzen dute, sasoian sasoikoa aintzat hartuta herrian antolatzen diren ekitaldietan parte hartzera animatzen ditugu, bertoko kulturara, ohituretara gerturatzeko modu hobeagorik ez dugu ikusten. Guraso berbalagunekin batera ere hainbat ekintzatan hartu izan dute parte, eta, askotan, seme-alabek egiten diete itzulpena gurasoei euskaratik euren hizkuntzara. Esperientziak esaten digu programa eraginkorra dela, herritarron arteko harremanak sendotu eta sarea osatzen laguntzen baitu, eta euskal kultura eta euskara denona eta denontzat dela erakusten du.



EIBAR
Euskara

EUSKARA SAIOAK HHI-EPA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak udal euskaltegiarekin eta AEKrekin lankidetzan EPAko ikasleek euskara ikas dezaten saioak eskaintzen ditu. Ikastaroak 60 edo 100 ordukoak izaten dira. Negu ikastaroa eta udako ikastaro intentsiboa ere eskaintzen da. Udako ikastaroan zehar umeen zaintza ere eskaini da.



EPEA: 2024

GASTUA: Baliabide propioak.

BALORAZIOA: Neguan 2 ikastalde egon dira.

MERKATARITZA LAN-MAHAIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto! Euskara elkarteak, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera lankidetzan egitasmoak eta kanpainak aurrera ateratzeko lan-mahaia da.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Orohar mahaia osatzen duten alderdi guztiek oso positiboki baloratu dute lankidetzak.

Berrikuntza Euskaraz barra-barra martxan jartzea izan da.

e// EUSKARAZ BARRA-BARRA EGITASMOA

DESKRIBAPENA: Eusko Jaurlaritzak sustatutako egitasmoa izan da. Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto, EMCI eta ostalarien elkartearekin batera jarri da martxan. Euskal Herri mailako egitasmoa den honek helburuen artean herritar euskal hiztunen estres linguistikoa gutxitu eta merkataritza arloan euskararen erabilera handitzea ditu.



EPEA: 2024

BALORAZIOA: 100 establezimendu inguruk eman dute izena, eta e// agiria jaso eta leku ikusgarrian jarri dute.

Martxoan kanpainaren zabalkunderako "17. Logela" ihes gela ekarri zen Eibarrera eta jende asko ibili zen.

EUSKARAZ PRIMERAN!

DESKRIBAPENA: Eta Kitto! Euskara elkarteak bideratzen duen egitasmoa da. Helburua eta Eibarko dendari eta ostalariak zerbitzua euskaraz ematearen garrantziaz jabetzea eta hori egin ahal izateko erraztasunak eta baliabideak ematea.



ESKAERA EGITEKO EPEA: 2024

BALORAZIOA: Eta kitto, Eibarko udala, Dendarien elkarte, merkataritza federazioa eta EMGIrekin batera egiten den lan-mahaian partekatzen dira egitasmoko ekintzak. Ohiko ekintzak egin dira, baina pisu berezia hartu du "Euskaraz primeran" sarien banaketak. Ekimen honen helburua establezimenduek euskararen erabilerari dagokionez egiten duten esfortzuari eta emandako aurrerapausoei aintzatespena egitea da. Modu horretan bezeroek euskarari dagokionen bere hizkuntza eskubideak bermatuta izango dituen establezimendua dela jakingo du. Hau da, establezimendu horretan bai idatzizko zein ahozko hartu emanetan, sare sozialetan... establezimendu horrek euskaraz lan egiten duela.

<https://etakitto.eus/proiektuak/euskeraz-primeran>

EIBAR, EUSKARAZ HEZIKO DUEN HIRIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan Eibar euskaraz heziko duen hiria izan dadien lan egingo du. Horretarako agente hezitzaile guztien sarea osatu nahi da.



ESKAERA EGITEKO EPEA: 2024

BALORAZIOA: Ikastetxeak Hiri Hezitzailearen atal garrantzitsu bat direnez, epe ertain-luzera begirako proiektu bateratu bat sortzeko lehen pausoak eman dira. Lehen ikasturte honetan ikastetxeko ordezkariekin bildu eta formakuntza proposamenak adostu genituen. Irakasleen formakuntzan zentratu garen arren beste formakuntza batzuk ere eskaini ditugu.

- Haur eta nerabeen kirol jardueretako entrenatzaileentzat formazio saioak: euskara sustatzeko baliabide praktikoan lanketa.
- EDUKI DIGITALAK. IKASTAROA: Online prestakuntza. Kirolean euskara sustatzeko prestakuntza ekintzak:
 - JokaTU
 - AktibaTU
 - Hizkuntza estrategiak kirolean
 - Udako jardueretako hezitzaileekin formazio saioa

UEU DIRULAGUNTZA DEIALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion dirulaguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

Dirulaguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2023/09/01 eta 2024/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.



ESKAERA EGITEKO EPEA: 2024/09/30

BALORAZIOA: Ez da eskaerarik egon.

EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (1)

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin dirulaguntza izendunak ditu. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriak aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

Eibarko AEK 30.000 €

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.



Eta Kitto Astekaria 100.041 €


Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

Eta Kitto Berbetan 50.908 €

Berbetan egitasmoa burutzea Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.



Eta kitto Txikitto 13.500 €



Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea

EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (2)

Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000 €


Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.

**Etta Kitto Ongi etorri Berbetanera 17.430 €**

Kanpoko jatorria duten eibartarrak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea elkarbizitza hobetzeko.

Badihardugu 1.386€


Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.

**Hankamotxak Bertso Eskola 3.235€**

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jardura egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoek artean bertsozaletasuna handitzea.

UEU 15.000€

Eibar, euskaraz heziko duen hiria egitasmoa
GASTUA: 244.999 €



EPEA: 2024

GASTUA: 244.999 €

BALORAZIOA: Elkarrekin egindako gastuen zuriak aurkeztu dute eta ontzat



EIBAR
Euskara

DIRULAGUNTZA ERROTULUAK EUSKARAZ

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak diru-laguntza deialdia kaleratu du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuloak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.

EPEA: 2024

LANKIDEAK:

Eibar Merkataritza guneko Irekia

Eta Kitto Euskara elkarteak



ESKAERA EGITEKO EPEA: 2023/11/13-2024/11/11

BALORAZIOA: Guztira 4 eskaera egon dira eta denek baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegokien dirulaguntza. Honela banatu dira dirulaguntzak:

ERROTULU NAGUSIA	776,52 €
FINKOA:	224,44 €
ELEMENTUAK:	45,95 €
GUZTIRA:	1.046,91 €

Eibarren **AKEBAI**



EKIPOA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu zen Eibarren AKEBAI plataformak duen talde eragilea da. Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin edo/eta urtetik urtera aldatu (euskaltegietakoak eta Euskara Batzordeko zinegotziak) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Cutxienez, hilean behin batzartuko da.



EPEA: 2024

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Ekipoa urteko aurrekontua eta plana egiteaz arduratu da, eta adostutako ekintza eta egitasmoak bideratu eta horien jarraipena eta zabalkundea egin du urtean zehar. Ekipoko kideak ekintza-taldetan banatuta aritu dira, egitasmoak aurrera eramaten.

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, Eibarko Udal Euskaltegiko ordezkaria; Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia (txandaka), Akekide boluntario bat, eta koordinatzailea. 6 kide izan ditu Ekipoak 2024an.

11 bilera egin ditu urtean zehar Ekipoak, denak presentzialak. Bileretan elkartzeaz gain, Ekipoko kideek emailaz, Whasappez eta Driven bitartez egin dute harremana eta lana. Ekintza-talde bakoitzak bere martxa eta funtzionatzeko era izan du, zegokion ekintza bideratu eta burutzeko.



DESKRIBAPENA: LH 2. mailan lantzen den egitasmoa. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikia, mahai-jokoa, bideoak, abestia-koreografia,...) euskararen inguruko hainbat portaera jartzen dira agerian, eta umeei egindako lanketa horren bitartez inpaktua sortzen da gurasoengan. Horrez gain, umeei mezu bat jaso dute: euskarak osoago eta zoriontsuago egingo dituela. AKEk eta KLIKek, etorkizunetik datozen pertsonaiek, misio bat jarriko diete; umeei, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobea egiten lagunduko diete: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan hainbat erronka gaititu behar izan dituzte, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...).




EPEA: 2024-2025 ikasturtea

BALORAZIOA: 2024-2025 ikasturtean egitasmoa berriz martxan jarri da. Abenduan hasi ziren LH2ko haurrak lehen erronkarekin, eta gabonetako oporretatik bueltan gainontzeko erronkekin jarraituko dute. AKE eta KLIK, bi izan dira ikasturte honetako superheroiak, eta Eibar hobea egiteko "SuperAkeak" lortuz joan dira. Egitasmoa 2025eko ekainera arte luzatuko da.



IRAKASLEENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

DESKRIBAPENA: Eibarren Akebaik, Eibarko Udalarekin eta UEUrekin lankidetzan duen “Eibar, euskaraz heziko duen hiria” proiektuaren baitan ikasturte hasieran sentsibilizazio saioak eskaini dizkie Eibarko Lehen Hezkuntzako lehen zikloko irakasleei. Hizkuntzaren erronkan lagungarri izango zaizkien baliabideak eskaintzea da saio hauen helburua.



EPEA: 2024ko iraila

BALORAZIOA: Ikasturteari indartsu eta motibatuta ekiteko, irakasleentzako mintegia antolatu zen: “Erabileraren ontzia bete”, EBETEk eskainia. HH eta LH1-2 mailetako irakasle guztiek hartu zuten parte.

EBETEko irakasleek euskararen erabileran eragiteko estrategiak azaldu dizkiete Eibarko ikastetxeetako irakasleei.



KIROL KLUBENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

DESKRIBAPENA: Haur eta gazteen kirol jarduerak euskalduntzeko helburuarekin, UNI Eibar-Ermuan kirol ikasketak egiten dabiltzan azken mailako ikasleentzako eta Eibarko Kirol Klubetako entrenatzaileentzako sentsibilizazio-saioak eskaini dira: aurrez aurrekoa eta online.



EPEA: 2024ko azaroa

BALORAZIOA: Guztira Eibarko 50 entrenatzailetik gora izan ziren Akebaik antolatu zituen sentsibilizazio saioetan parte hartu zutenak. Saio hauetan kirolak euskararen erabileran eta normalizazioan duen garrantziaz aritzeaz gain, praktikara eramateko adibide eta gomendioak ere azaldu zitzaizkien. Formakuntza hauetan Uni Eibar-Ermuan "Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa" goi-mailako ikasketak egiten dabiltzan bigarren mailako ikasleek hartu zuten parte, eta baita Eibarko kirol klub ezberdinetako entrenatzaileek ere: SD Eibar, Eibar Eskubaloia, Eibar Rugby taldea, Ipurua Gimnasia Erritmikoa, Judo Klub Kalamua eta CD Urki.



EIBARKO HIKA

DESKRIBAPENA: Eibarko hika berreskuratzeko asmoz, 2023an argitaratutako Appa Hi! Aplikazioari jarraipena emanez "Eibarko hika liburuxka" kaleratu da eta noka ikastaroa egin zen Euskararen hamabostaldian.



EPEA: 2024ko udazkena

BALORAZIOA: Eibarko hika ikasteko liburuxka kaleratu da eta abenduaren 12an Euskararen Hamabostaldiaren egitarauaren barnean noka ikastaroa egin zen Andretxean. Guztira 8 emakumek hartu zuten parte noka ikastaroan eta balorazio positiboa izan zuen.

Liburuxkari dagokionez, 2025ean egingo da zabalkundea.



HEZITZAILEENTZAKO SENTSIBILIZAZIO SAIOA

DESKRIBAPENA: Udarar haur eta gazteen aisialdian hezitzaile ibili direnentzako sentsibilizazio saioa eskaini zitzaien, "Udako jardueretan euskararen erabilera sustatzen" izeneko formakuntzan



EPEA: 2024ko ekaina

BALORAZIOA: Astixako begiraleek sentsibilizazio saioa jaso zuten EBETErren eskutik. Helburua haurren aisialdian euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetzea zen, era horretarako, praktikara eramateko hainbat estrategia lantzea.



BEGIRALE IKASTAROA

DESKRIBAPENA: Debabarrenean euskarazko Aisialdiko Begirale ikastaroa antolatu da Gaztetxo Eskolarekin batera.



**AISIALDIKO BEGIRALE
IKASTAROA 2024-2025
DEBABARRENEAN**

 Larunbatetako saioak Eibarren eta Elgoibarren
Asteburuak La Arboleda aterpetxean.

 **Urria ekainera bitartean**
• 9 larunbat
• 3 asteburu

 **294,5€ (Debabarrenean eirordatuak 147,25€)**

Matrikulazio epea: irailaren 20ra arte (plaza mugatuak).

Matrikulazioa formulazko bidez: <https://labor.euz/debabarreneabeg>

 **Informazio gehiago:** 943 708425



EPEA: 2024ko urria-abendua

BALORAZIOA: Izen-ematean egon den arrakasta ikusita azkenean bi talde sortzea erabaki zen. Guztira 29 ikaslek eman zuten izena, horietatik 11 eibartarrak. Ikastaroaren prezioa 294,5 eurokoa da baina udalen laguntzei esker partaideek 147,5 euroko matrikula ordaindu dute.



GAME ERANTSIA

DESKRIBAPENA: Sarean euskaraz dauden bideojokoak ezagutzeko eta haien egoeraren inguruan hausnartzeko tailerrak antolatu ziren Eibarko ikastetxeetan.



EPEA: 2024ko urtariletik ekainera

BALORAZIOA: “Gamer Gela” tailerraren bidez euskarazko bideojokoen berri eman zaie Eibarko gazteei. La Salleko, BHIko eta Aldatzeko ikasleak ibili ziren bideojokoak probatzen, eta helburu nagusia izan da erabilpena sustatzea, hala nola teknologia berrien alderdi positiboak garatzea, prebentzioa landuz eta gizartean online elkarbizitzeko konpetentzia sustatzea.

ESKOLA-ORDUZ KANPOKO JARDUEREN HIZKUNTZA EGOERAREN DIAGNOSIA

DESKRIBAPENA: Tresna honen helburua da, alde batetik, udalerrri batean 16 urtetik beherako gazteentzat antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduera guztiak identifikatzea eta, beste alde batetik, identifikatutako jarduera horien hizkuntza-egoerari argazki bat ateratzea.

[illegible]

EPEA: 2024

BALORAZIOA: Eibarren kirol klubekin eta aisialdi elkarteekin batu gara jardueren hizkuntza egoeraren diagnosia egiteko. Guztira 15 diagnosi egin dira 2024an eta 2025ean gainontzeko elkarte eta erakundeekin jarraitzea da asmoa.



HAMAICA BERBALDI

DESCRIPCIÓN: "Hamaika berbaldi" egitasmoaren helburuak honako hauek dira: herritarrak aktibatzea, hizkuntza eskubideak ezagutaraztea, euskaldunok ahalduntzea, euskararen aldeko diskurtsoa berritzea, euskal kultura eta euskalduntasuna sustatzea... eta herriko eragileekin harremanetan jarri eta lankidetzan aritzea.



EPEA: 2024ko urriaren 12an Coliseoan

BALORAZIOA: Dentro del programa Hamaika Berbaldi, este año se ha hecho un esfuerzo especial para entrar con grupos de mujeres y se han llevado a cabo varios proyectos en colaboración. Uno ha sido "Tabuen kutxatik oholtzara." Tuvo una gran acogida por parte del público, y el Coliseo congregó a unas 300 personas.



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA

DESCRIPCIÓN: Eibarren AKEBAIk errenta aitorpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egin du. Helburua da aitorpena euskaraz egiten duten eibartarren kopurua igotzea. Kanpaina webgunean, sare sozialetan eta herriko hedabideetan egin da, eta etxez etxe esku-orriak banatu dira lehen aldiz.

HIZTEGIA

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Kategoria	2022ko errenta aitorpena		2023ko errenta aitorpena		2023ko errenta aitorpena 2022ko errenta aitorpenarekin aldatuta
	Errenta	Errenta	Errenta	Errenta	
Errenta	108	94,14	1.942	91,1	+7
Errenta	514	98,00	1.112	97,00	+19
Errenta	302	97,00	476	97,00	+175

Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak:

- Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
- Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
- Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Gaur egun errenta aitorpena egiteko 3 modu daude eta guztietan erabili daitezke euskaraz. Nola?

- AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA**
 - Errenta aitorpena proposamena, Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
 - Errenta aitorpena proposamena, Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
- MEKANIZATUA**
 - Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
 - Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
- INTERNET BIDEZKOA**
 - Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak
 - Errenta aitorpena euskaraz egiteko moduak

EPEA: 2024ko martxoa-ekaina

BALORAZIOA: Errenta aitorpena EUSKARAZ!" leloarekin abiatu zuen kanpaina Eibarren AKEBAIk, Eibarko Udalaren babesarekin. Sare sozialetan eta hedabideetan kanpaina zabaltzeaz gain, aurtien lehen aldiz eskualde mailan triptikoak banatu dira etxez-etxe errenta aitorpena euskaraz egiteko beharrezkoa den informazioarekin.



HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA

DESKRIBAPENA: AKEBAIren asmoa da herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea modu argian: ordenantza, dekretu berria, erabiltzaile-kontsumitzaileen dekretua... Horrekin batera, zalantzak argitzeko, hizkuntza eskubideen urraketen berri emateko eta horiek bideratzeko kanala du: Astindu.



EPEA: 2024

BALORAZIOA: Eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala dugu; bertokoa, gertukoa, herrikoa: "ASTINDU Eibar" hizkuntza eskubideen ataria. Kanalaren zabalkundea egiteko, hainbat argitalpen egin dira 2024 urtean zehar. Herritarren aldetik 13 ekarpen iritsi dira Astindura, 2023an baina 11 gehiago, eta bakoitza zegokion eran kudeatu dugu.



TRANSMISIO MINTEGIA

DESKRIBAPENA: ...Eta Kitto! Euskara elkarteak antolatzen du Akebairen babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua. Aurtengoa aurrez aurre izan da SD Eibarren Ipuruako aretoan.



Euskararen sozializazioa eta transmisioa
XIV. MINTEGIA

Maiatzaren 8an
SD EIBAR KE-aren prentsa aretoan

8:45: Material jasoketa
8:55: Ongietorria eta agurra
9:10: Hizkuntzaren funtamentuak. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak
Jaime Albura, EHUko irakasle eta ikerlaria.
10:15: "Gazteen online kontsumoak"
Garaiz Sánchez, EHUko NOR ikerketa taldeko ikerlaria.
11:00: "Euskararen geografia berria"
Gariñeitz Goikoberea, Tolosako Udaleko Euskara eta Hizkuntza Sailako buru eta ikerlaria.
11:45: ATSEDENALDIA
12:20: Begirada bat Nafarroara
12:25: "Agerraldia, euskara plazara"
Iñaki Suenkua, Enrileira eta Agerraldiko kidea.
13:00: "Aisialdia eta euskara, hori gara gu"
Esther Lakosta Perez- Itzarte, Dindala Fundazioako teknikaria.

BAZKARIA (akomatu) IPUUR SAGARDOTEGIAN

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

etakitto! Euskararen elkarteak

Euskararen AKEBAI

Euskararen AKEBAI

EPEA: 2024ko maiatzaren 8a

BALORAZIOA: Euskararen sozializazio eta transmisioari buruzko mintegiaren 14. edizioa izan zen 2024koa. Mintegian transmisioaren eta sozializazioaren gaietan inplikaturik dauden eragile askoren presentzia izan genuen, eta praktika onak ezagutu eta ideia berriak garatzeko erabat baliagarria izan da. Leku aldaketa egin da eta Armeria Eskolako Areto Nagusian egin beharrean, SD Eibar-ek Ipuruan dituen instalazioetan izan da.



EUSKARAREN HAMABOSTALDIA

DESKRIBAPENA: AKEBAIk euskalgintzarekin eta Udalarekin batera antolatu du Euskararen Hamabostaldia.



EPEA: 2024ko azaroaren 28tik abenduaren 12ra

BALORAZIOA: Euskararen Egunaren harira Euskararen Hamabostaldia antolatu genuen egitarau betearekin. Ana Goitiaren "Katana" bakarrizketa bertan behera geratu zen azken momentuko osasun arazoak zirela eta. Euskararen Egunean, abenduaren 3an, 50 bat lagun ibili ziren Mintzodromoan eta ondoren Eibarko Euskalgintzaren eskutik antolatutako "Ixotu euskaria" ekintzan jendetza bildu zen eguraldiak lagundu ez arren. Andretxean "Euskalgintza eta feminismoa" hitzaldia eta noka ikastaroa eg ziren. Azken honetan 8 emakumeren partehartzea izan genuen.



GIDABAIMENAK EUSKARAZ

DESKRIBAPENA: Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri dute "Gidabaimenak euskaraz!" egitasmoaren bitartez gidabaimenak euskaraz prestatzeko aukera ematen zaio ikasleari. Helburuak dira gidabaimenak euskaraz ateratzeko aukera bermatzea eta formazioa euskaraz emateko, euskarazko material espezializatua jartzea arloko profesionalen esku (autoeskolak, irakasleak, eskolak...)



EPEA: 2024ko ekainetik abendura

BALORAZIOA: Eibarren autoeskola batek gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen du, eta Eibarren Akebaik gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean hiru sari zozketatu ditu: 250, 100 eta 50 euroko erosketa-bonoak. Irati Zarrua izan zen lehena azterketa gainditzeko eta ...eta kitto!-n elkarriketa egin zitzaion.



KORRIKA

DESKRIBAPENA: Korrika, euskararen alde Euskal Herrian zehar lasterka egiten den martxa, AEK euskaltegi elkarteak antolatua, aurten martxoaren 20an pasatu da Eibartik. Herriko beste elkarte, erakunde eta talde askok bezala, Eibarko Udalak eta AKEBAI plataformak ere Korrikan parte hartu dute, Korrika eginez eta baita Bizkarsoro emanaldia programatuta Coliseoan



EPEA: 2024ko martxoaren 14tik 24ra

BALORAZIOA: Korriakaren egunean espero bezala herriaren erantzuna oso ona izan da eta eta Bizkarsororen emanaldian ere jendetza bildu zen. Goizean DBH eta batxilergoko ikasleek ikusi zuten filma, eta arratsaldean, berriz, herritarrentzako eskaini zen.



M8 LANTALDEA

DESKRIBAPENA: Martxoaren 8ko lantaldea orain dela 8 urte sortutako lantaldea da, oraindik ere eraikuntza prozesuan dagoena. Orain arte, lantalde honen eginkizuna martxoaren 8ko egitaraua kolektiboki antolatzea izan da. Lantaldearen helburu nagusia da, egun horren bueltan, emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna eta feminismoa aintzat hartzea eta aitortzea Eibarren, modu eta jarduera ezberdinen bidez, dagoen diskriminazio egoera eraldatzeko.



EPEA: 2024

BALORAZIOA: Martxoak 8 egunaren bueltan antolatu ziren ekimen eta ekitaldietan parte hartu zuen Akebaik, eta horretaz gain, urriaren 12an "Tabuen kutxatik oholtzara" bertso saio musikatu solidarioa antolatu zen Eibarren.



ESKUKO HIZTEGIAK

DESKRIBAPENA: Eskuko Hiztegiak egunerokoan erabiltzen diren oinarrizko hitzak jasotzen ditu hainbat hizkuntzatan. Hiztegiak 200 hitzetik gora ageri dira, hainbat sailetan banaturik: agurrak; denbora; norabidea; ohiko hitzak; garraioa; pertsonak; jatekoak eta edatekoak; hoteletan, jatetxeetan, eta tabernetan erabiltzen diren hitzak; egunak eta hilabeteak; zenbakiak; etxea; lekuak; turismo guneak; dirua; komunikatzeko tresnak...



EPEA: 2024ko udazkena

BALORAZIOA: Elgoibar, Eibar, Deba eta Soraluzeko udalok Eskuko Hiztegia argitaratu dugu helburu bikoitzarekin: euskararen presentzia eta erabilera sustatzea alde batetik, eta herrian ditugun beste hizkuntzetara hurbiltzea bestetik. Eguneroko hitzak hamaika hizkuntzatan jasotzen dituen hiztegiak banatu dira, besteak beste, ikastetxeetan, immigrazio sailean, Pegoran, Portaleko harreran, haur eskoletan...



FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

DESKRIBAPENA: 0-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten familietan euskararen familia bidezko transmisioa indartzera bideratutako berariazko esku-hartze plana abian jartzeko proiektua da.



EPEA: 2024ko urria-abendua

BALORAZIOA: Eibarren hiru bilera egin dira sortutako talde eragilearekin. Talde eragile horren dinamizazioa Siadecok eraman du eta parte hartu dute ikastetxeek, gurasoek, euskaltegiek, Eibarko Udala eta Akebaik, besteak beste. Eibarren familia bidezko hizkuntza-transmisioan eragiteko egiten dena ezagutu, baloratu, eta 2025era begira estrategikoak diren lan ildoak zehaztu dira.



UDAL EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIKO PLANTILA

DESKRIBAPENA: Euskaltegioko plantila 10 lagunez osatuta dago: 9 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2023/2024 ikasturtean, 4 irakasle-normalizatzaile aritu dira klaseak ematen, horietako bi jardun osoan eta beste biak % 60ko lanaldiarekin; Jardun osoko irakasle baten bajaldia betetzeko irakasle bat hartu da, baina hori ere gaixotu denez, bigarren bat hartu behar izan da irakasle titularra sendatu arte (urria-abendua). Beste irakasle bat kontratatu da lanaldi murriztarekin EPAko eta gurasoen taldeetan klaseak emateko, azarotik ekainera bitartean.

Idazkari akademikoa eta zuzendaria lan jardunaren erdia irakasle lanetan aritu dira eta beste erdia euren karguei dagozkien lanetan.

Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta hirugarren bat itzultzaile lanak egiten udalean.

Zuzendaria	Euskaltegian
Idazkari Akademikoa	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Euskaltegian
3 Irakasle-normalizatzaile	Euskara Zerbitzuan
3 irakasle aldi baterako kontratatuta	Euskaltegian
Administraria	Euskaltegian



EPEA: 2023 - 2024 ikasturtea

CASTUA: 320.717,32 €

BALORAZIOA: Esan bezala, hiru irakasle kontratatu behar izan dira, 2, ordezeko bat betetzeko eta hirugarrena, eskaerari aurre egin ahal izateko gainontzekoen jarduna beteta baitzegoen.



EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA 1/2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua **16 urtetik gorakoei** zuzenduta dago. Europear Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako **maila guztiak** eskaintzen ditu, hau da, Aletik hasita C2ra arte, **goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.**

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntza bidezkoak izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean hainbat modulu eskaintzen ditugu: astean 10 ordukoa astelehenetik ostegunera; astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 mailan); astean 8 ordukoak (C2 mailan); ikastaro trinkoak eta 100 edo 60 orduko ikastaroak (xede bereziko taldeetan).

C1 eta C2 mailetako azterketak prestatzeko 10 orduko ikastaro motzak eskaini dira. Autoikaskuntzarako HABEk prestatutako programa erabiltzen da (BOGA), zeina tutoretza eta mintza-saioen bidez osatzen den.

Uda ikastaroan, 80 orduko aurrez aurreko klaseak izaten dira, eta aurten autoikaskuntza ere eskaintzen dugu.

Irailean, C1 mailako azterketa prestatzeko 30 orduko ikastaroa eskaini dugu.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei zuzendutakoak, gurasoei begirakoak, enpresetan, ikastetxeetan ...

Azterketa prestakuntza eta HABEko **azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da.

A1 eta A2 mailak euskaltegian bertan egiaztatu ahal dira ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak **Liburutegi zerbitzua** (maila bakoitzari egokitutako liburuak maileguan) eta **Ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA 1/2

EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: A2 mailan izan ezik, beste maila guztietan izan ditugu taldeak. A1, B1 eta B2 mailetan, gainera, txandaka aritzeko aukera izan dute ikasleek, goizez eta arratsaldez osatu baitira taldeak.

Aurten **aipatzekoa da** C1 maila prestatzeko bost talde izan ditugula: urtero bezala eguneroko talde bat goizez, eta astean bi eguneko beste bat arratsaldez, eta 16-18 urte arteko ikasleez osatutako hiru talde: bi Aldatzeko ikastetxean eta bestea La Salleko ikasleez osatutakoa euskaltegian bertan.

Gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 44 ikasle izan ditugu, iaz baino 17 gehiago.

Ikastaro eta talde berezien artean hauexek izan ditugu: *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik sortutako bat, EPAn talde bat, Debarrena Integran beste bat, Aldatze ikastetxeko umeak uztailan, Unibertsitatean bi talde, udaletxean C2 maila prestatzeko talde bat eta beste bi talde *Baliabide informatikoak* eta *Zalantza dantza* ikastarotxoak jasotzeko. Horietaz gain, C1 eta C2 mailak lortzeko azterketara begirako ikastaro motz batzuk ere izan ditugu, bai 1. deialdirako bai 2. deialdirako.



TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. (Udalaren web orrian ikusgai)



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

GASTUA: 20.913,50 €

BALORAZIOA: Ikasturte honetan 158 ikaslek izan dute tarifa bereziren bat (% 71,5)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 6 ikasle (% 2,7)
- DBE-RGI izateagatik: 2 (% 0,9)
- Guraso izateagatik: 32 (% 14,5)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 15 (% 6,8)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 6 (% 2,7)
- Langabetua izateagatik: 23 (% 10,4)
- Ikasle izateagatik: 74 (% 33,5)
- Familia ugaria izateagatik 0 (%0)

TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

DESKRIBAPENA: 2023/2024 ikasturtean 289 ikasle ibili dira Euskaltegian 20 taldetan banatuta, guztira 32.330 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2023/2024		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	17	30.170	208
	Autoikaskuntzan	1	-	44
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	3	2.160	37

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- Talde 2 336 ordukoak - Talde 1 100 ordukoa (gurasoak) - Talde 1 60 ordukoa (Debabarrena integra)		- 2 talde 336 ordukoak	- Talde 1 132 ordukoa (Aldatzen) - Talde 1 60 ordukoa (Uni Eibar-Ermuan) - Talde 1 80 ordukoa (Uda Ikast.)	- talde 1 336 ordukoa - Talde 1 172 ordukoa - Talde 1 136 ordukoa (Aldatzen) - Talde 1 124 ordukoa (La Salle) - Talde 1 100 ordukoa (gurasoak) - 2 talde 4 ordukoak (Udaletxean) - Talde 1 100 ordukoa (Uda Ikast.) Taldea 1 30 ordukoa (irailean)	- Talde 1 272 ordukoa - Talde 1 172 ordukoa (Udaletxean)
Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun
8	4	5	11	16	-

EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: : 2023-2024 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 35 ikasle gehiago izan ditugu, 289 hain zuzen ere. Orduet dagokienez, 32.330, iaz baino 2.389 gehiago. Aurrez aurreko 20 talde izan ditugu aurten (autoikaskuntzako ikasleekin beste bat konputatzen da HABEren aurrean), iaz baino 1 gehiago. Gurasoak ere eskolara kanpainatik 100 orduko talde bat izan dugu, iaz bezala. Unibertsitatean 60 orduko talde bat eta EPAn, berriz, 2 talde sortu dira (1, *Debabarrena integra*). Azterketak prestatzeko talde bat osatu da irailean, 30 ordukoa. Uda Ikastaroan, 80 orduko talde bi. Taldeetako ratioa apur bat altuagoa da izan da, 12,5ekoa, (iaz 11,9koa).



IKASLEAREN PROFILA

DESKRIBAPENA: 2023-2024 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

SEXUA		LAN EGOERA	
Emakumezkoak	194 (% 67,10)	Lanean edo ikasten	238 (% 82,4)
Gizonezkoak	95 (% 32,90)	Langabezian	51 (% 17,60)
IKASKETA MAILA		ADINA	
Unibertsitate-gradua	134 (% 46,4)	16 - 25	103 (% 35,6)
UBI-LHII	114 (% 39,4)	26 - 35	48 (% 16,6)
Eskola graduatua	25 (% 8,7)	36 - 45	47 (% 16,3)
Beste	16 (% 5,5)	46 - 55	65 (% 22,5)
		56 - 65	20 (%6,9)
		>65	6(% 2,1)



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasleen erdia baino gehiago emakumezkoak izan dira. Titulazioari erreparatuta, gehienek goi eta erdi mailako titulazioa dute, eta batez besteko adina, 16 eta 28 urte bitarteko C1eko ikasleak kenduta, 45-55 urtekoa izan da, iazkoa baino altuagoa. Aurten HABEk dirulaguntza lerro bat atera du 16 eta 18 urte bitarteko gazteek C1 maila presta zezaten eta 42 ikasle matrikulatu dira dirulaguntza hori aprobetxatuz. Langabetuak 51 izan dira, % 17,6 aurreko urteetan baino gutxiago.



HABEREN AZTERTZAILEAK

DESKRIBAPENA: Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatz-ekaina aldera (deialdi itxia eta irekia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia). Azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan izan ditu aztertzaileak orain arte. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



EPEA: 2023-2024 ikasturtea


GASTUA: Barne baliabideak.

BALORAZIOA: Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun. 2024an, 2023an ez bezala, B1 mailako aztertzaileak ez dugu izan HABE osasun arazoak direla medio. IVAPen C2ko aztertzailea baino ez daukagu.



FORMAZIOA

DESKRIBAPENA: Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontuan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



IKASTAROEN ZERRENDA:

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	TUTOREA	PARTE HARTZAILEA
Bulegoetan segurtasuna eta osasuna	Eibarko Udala		Idoia Argoitia
Udalaren web orria	Eibarko Udala	CodeSyntax	Idoia Argoitia Arantza Barrutia Arantza Iriondo

EPEA: 2023-2024 ikasturtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

Ikasturte honetan oso formakuntza saio gutxi jaso dira. Alde batetik eguneroko lanak ez digu tarterik lagatzen ikastaroetan parte hartzeko eta bestetik, gero eta irakasle talde txikiagoa izanda antolaketak lehentasuna du. Bestetik plantillan gauden irakasleen lan ibilbidea 2025-2026 ikasturtean bukatuko da eta formakuntzan inbertsioa egitea ez da lehentasuna.



KANPO EKINTZAK 1/2

DESKRIBAPENA: Kanpo ekintzak dira ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk, berriz, Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte; eta, beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatutakoak dira. Hilabetez hilabeteko eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartuta, proposamena egiten da taldeetan (eskola orduetan izan zein haietatik kanpo). Bestelako ekintzen berri ere eman eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Orokorrean ikasleek gustura hartzen dituzte kanpo ekintzak, klasearen egunerokotasunetik irteteko aukera ikusten baitute horrelakoetan. Hala ere, kontuan hartu behar da ikasleen gustuak agintzen duela honetan ere, eta zenbaitetan bultzatu egin behar izaten direla parte har dezaten. Hori horrela, denon satisfazio maila ez da bera izaten. Esan beharrik ez dago guk ezinbesteko ikusten dugula kanpo ekintzak antolatzea, ikasleek euskaltegitik kanpo euskaraz antolatzen denaren berri izan dezaten, batetik; bestetik, giro euskaldunean murgil daitezen.

Taulan aipatutakoez gain, hilabetero jartzen da euskaltegiko ohar-taulan hilabeterako euskaraz antolatutako ekintzen agenda.



KANPO EKINTZAK 2/2



EKINTZEN ZERREDA:

URRIA	• ANTZERKIA “Ni ez naiz inoiz <u>Dublinen</u> egon” - <u>Coliseo</u> antzokian
AZAROA	• ASTINDU lehiaketa - eta kitto astekarian • BERBETAN programaren aurkezpena - Euskaltegian • ONGI ETORRI programaren aurkezpena - Euskaltegian • PORTALERA bisita - Kultur etxea • GAZTAIÑERRE eguna - Euskaltegian • INTERNETEKO BALIABIDEAK - Euskaltegian
ABENDUA	• EUSKARAREN EGUNA (GAITU.EUS) - Euskaltegian • ANTZERKIA “Kortxoaren dilema” - <u>Coliseo</u> antzokian
URTARRILA	• San Blas opilak (egin, lehiaketa...) - Portaleko sukaldean
OTSAILA	• Antzerki jardunaldiak: “Bihar arte soilik” - <u>Coliseo</u> antzokian • Antzerki jardunaldiak: “Almazenean” - <u>Coliseo</u> antzokian
MARTXOA	• Antzerki jardunaldiak: “Esnearen kolorekoa” - <u>Coliseo</u> antzokian • Antzerki jardunaldiak: “Masustondoen patioa” - <u>Coliseo</u> antzokian • Erakusketa: “Emakumearen aurkako indarkeria sinbolikoak” - Andretxea
MAIATZA	• Museora bisita - Armagintza museoa
EKAINA	• Xaboi eta ukendu tailerra - Portaleko sukaldea

LIBURUTEGI ZERBITZUA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburu mailegu-zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 2 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



EPEA: 2023-2024 ikasturtea


GASTUA: 728,81 €

BALORAZIOA: Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Aurten 33 liburu erosi dira gramatika-liburu eta eleberrien artean, eta 119 aldiz erabili da mailegu zerbitzu hau.



EGIAZTATZEGINTZA

DESKRIBAPENA: A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasota izatea...). B1, B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegiako ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkez daitezke, baina badaude beste bide batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea, Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPEkoak...



EPEA: 2023-2024 ikasturtea

BALORAZIOA: 2023ko 2. deialdiko eta 2024ko 1. deialdiko HABEko azterketen emaitzak onargarriak dira gure ustetan. Kontuan hartu behar da B1 eta B2 mailako gure ikasle asko Hizkuntza Eskolako deialdira aurkezten direla, eta emaitzak HABEko idatzien emaitzak baino lehenago ematen dituztenez, ez dira HABEren deialdiko ahozkoa aurkezten. Horrezaz gain, badira IVAPEko eta IRALEko deialdietara ere aurkeztu direnak. Azterketa horietara aurkezten diren ikasle askok ez digute adierazten gainditu duten ala ez, guk esateko eskatu arren. Aurtengo ikasturtean C1 mailan ikasle asko izan ditugu (asko eta asko 16 -18 urtekoak) eta aukeraren bat izango zutelakoan deialdi itxira joateko aurrerabidea eman diegu; hala ere, emaitzek erakutsi dute askok ez dutela C1 maila erakutsi.

A1 eta A2 mailak egiaztatu dira ebaluazio jarraituaren bidez. Maila gainditzeaz gain, beharrezkoa izan da % 75eko asistentzia eta ebaluazio ebidentziak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikasaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 11 ikaslek lortu dute (% 44k) eta A2 maila 1ek (% 20k). Kontuan izan behar dugu ez dugula A2 mailako talderik izan.



